



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Prentsa-oharra

Barbadun ibaiaren arroan kokatutako burdinola, errota eta torretxeetan zeharko ibilaldia antolatu dau Enkarterrietako Museoa

Bilbon, 2012ko azaroaren 13an.

Zapatu honetan, azaroaren 17an, Enkarterrietako Museoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiek Barbadun ibaiaren arroan kokatutako burdinola, errota eta torretxeetan zeharko ibilaldiaren IV. Edizioa antolatu dabe. Kultur ibilbide horren bitartez, Enkarterriaren industria-ondare aberats eta ugariaren barri emon gura da. Ibilaldia goizeko 9:00etan hasiko da Muskizeko San Juan enparantzan, eta eguerdiko 14:00 aldera amaituko da Sopuertako Abellanedako Museoan, 26 kilometroko ibilaldia eta gero.

Ibilaldi horren bitartez zuzen-zuzenean ezagutarazo gura dira Barbadun ibaiaren arroan oraindik orain zutik dagozan burdinolak, baita beste eraikin batzuk —errotak, torretxeak edo jauregiak— be. Aurtengo edizioan ibilbidea aldatu egin da eta orain dala gitxi erabarririk dagoan bide berdearen zenbait zati ezagutuko dira, horretarako asko errekearen ondotik eta bertako burdinolen paren doazala. Ibilbideak Sopuerta alderantz egingo dau, Lalindeko kaltzinazino-labeak ikusi ahal izateko.

Desgaitasundunentzako ibilbidea

Museoa eta Gorabide alkarteak proiektu inklusiboa garatzen dabe alkarlanean, desgaitasundunek be Museoaren ekintzetan parte hartu dagien. Horren ildotik, bada, ibilbidearen zati bat, El Pobal eta Valdivian (Galdames) artekoa hain zuzen, oraintsu 50. urteurrena bete dauen alkarte horretako kideek egingo dabe eta, era berean, indarbarritzeko jan-edanetarako prestatutako hiru lekuetatik bi Gorabideko lagunen ardurapean egongo dira. Ibilaldia doan da eta nahikoa da www.enkartermuseoa.net helbidean izena aurretiz emotea.

Zehaztasunak

- Urten: 9:00etan San Juan enparantzatik (Muskiz)
- Heldu: Enkarterrietako Museora (Sopuerta)
- Izena aurretiz emotea (doan) www.enkartermuseoa.net helbidean (gehienez 500 pertsona); ibilaldiaren egun berean 08:00etatik 8:45era.
- 26 kilometroko ibilbidea; jan-edateko hiru leku. Dana amaitzen danean, Muskizera itzultzeko doako autobus zerbitzua izango da.

Informazio gehiagotarako: 94 650 44 88
(Javier Barrio, Enkarterrietako Museoaren zuzendaria)

Ibilbidearen nondik norakoen bideoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=n213yy5aFh8&feature=channel&list=UL>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

El Museo de las Encartaciones organiza una marcha por las ferrerías, molinos y torres de la cuenca del Barbadún

Bilbao, a 13 de noviembre de 2012.

Este próximo sábado, 17 de noviembre, el Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia organizan la IV edición de la “Ruta de ferrerías, molinos y torres de la cuenca del río Barbadún” una marcha de senderismo cultural que pretende dar a conocer el variado y rico patrimonio industrial de las Encartaciones. La marcha partirá a las 9 de la mañana desde la plaza San Juan (Muskiz) y finalizará en torno a las 14:00 horas en el Museo de Abellaneda (Sopuerta), tras un recorrido de 26 kilómetros.

Esta actividad pretende dar a conocer de manera directa y práctica las ferrerías de la cuenca del Barbadún, así como otros elementos patrimoniales (molinos, torres, palacios...) que se conservan en un itinerario que discurre por los municipios de Muskiz, Galdames, Sopuerta y Zalla. En esta cuarta edición, la ruta elegida cambia con respecto a otros años. Los asistentes recorrerán distintos tramos de la renovada vía verde, muchos de los cuales pasan junto al río y cerca de restos ferrones. Además, el itinerario se desviará en Sopuerta para conocer los hornos de calcinación de Lalinde.

Participación de Gorabide

En el marco del proyecto inclusivo que el Museo desarrolla con la asociación Gorabide para abrir estas actividades a otros los colectivos, uno de los tramos de la ruta, entre las ferrerías de El Pobal y Valdivián (Galdames), será recorrido por miembros de esta asociación que trabaja en el ámbito de las personas con discapacidad y que recientemente ha celebrado su 50 aniversario. Integrantes de este colectivo participarán en la gestión de dos de los tres puntos de avituallamiento de la ruta. Para participar en la jornada sólo es necesario apuntarse previamente en la web www.enkarterrimuseoa.net. La actividad es gratuita.

Datos

- Salida: 9:00 h. desde la plaza de San Juan (Muskiz)
- Llegada: Museo de Las Encartaciones (Sopuerta)
- Inscripción previa (gratuita) en la página web www.enkarterrimuseoa.net (máximo 500 personas) y el mismo día de la ruta desde las 08:15 horas.
- La distancia a recorrer será de 26 kilómetros y habrá tres puntos de avituallamiento. Al finalizar habrá un servicio gratuito de autobuses para regresar a Muskiz.

Más información: 94 650 44 88
(Javier Barrio, Director del Museo de las Encartaciones)

Vídeo con el trazado de la ruta:



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

<http://www.youtube.com/watch?v=n213yy5aFh8&feature=channel&list=UL>